

**SERANTES KULTUR ARETOA
AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUKO SAIOAREN AKTA**

2016ko MAIATZAREN 31ko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan, arestian aipatutako eguneko hamaikak direla, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zurreretik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

KONTSEILUBURUA:

Danel Bringas Egilior jn.

KONTSEILUKO KIDEAK:

Ivan López Arenas jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Maitane Luna Vizcaíno and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Daniel Urkiaga Alberdi jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea.

Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea.

Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea.

Zuzendaria: Carlos Moran Arostegi

Kontu-hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda.

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

**1.- 2016ko MARTXOAREN 29ko OHIKO BILERAREN AKTA IRAKURRI
ETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

2016ko martxoaren 29an egindako ohiko saioaren akta lehenago igorri denez, ez da une horretan irakurri eta artezkaritza kontseiluko kide guztiek onartu dute aho batez.

**2.- AURREKONTUEN BETETZE-EGOERA 2016ko MARTXOAREN 31ra
ARTE.**

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundearen aurrekontuaren betetze-egoeraren berri eman du, martxora arteko datuak emanez, berau barne eta alderdirik azpimarragarrienak nabarmendu ditu, Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zurreretik bidalitako dokumentazioarekin bat etorritz.

Ez denez gai honetan parte hartzerik egon Artezkaritza Kontseiluko kideek gaiaren berri izan dutela ulertu da.

3.- SAN JORGE ELIZAKO ORGANOA

Kontseiluburu jaunak gaiari hasiera eman dio eta adierazi du gerta daitekeela San Jorge Parrokia eta Gotzaintzarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea elizako organoa zaharberritu dadin. Hala eta guztiz ere, jakinarazi du dagoeneko gaia Artezkaritza Kontseilutik kanpo jorratu dutela, zenbait talderen ekarpen eta guzti, baina beharrezkoa dela horri buruzko adostasuna lortzea eta beste alderdiari erabakia helaraztea.

Lucena Balda jaunak hitzarmenaren zirriborroaren lehenengo puntuaren erredakzioaz galdetu du. Jakin nahi du eta aipatzen ari den organoaren erabilera parrokoaren borondatearen menpe dagoen, horrela balitz, ezin izango litzatekeelako onartu.

Artezkaritza Kontseiluko buruak esan du bere ustez, puntu hori arlo liturgikoan izan daitekeen erabileraz ari dela eta berau mugatzea are zailagoa dela.

García Saez jaunak uste du denbora luze daramatela gai honen inguruan eta adostasuna lortu beharko litzatekeela behingoz aurrera jarraitzekotan.

Urkiaga Alberdi jaunak esan du bere taldearentzat gai hau ez dela bereziki garrantzitsua, baina alde daudela, ondare gisa garrantzitsua izan ez ezik, herritarrek etekina ere atera dezaketelako.

Lucena Balda jaunak gaineratu du Udalak 20.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartzen badu, espero daitekeela elizak zerbait emango duela ordainean, lehenengo eta behin negoziazioan jarrera zabalagoa izatea. Azken batean, esan nahi du organoaren erabilerarekin lotutako guztiak parrokoak beren-beregi onartzea eskatzen badu, bere taldea aurka agertuko dela.

Urkiaga Alberdi jaunak esan du bere taldeak nahiko lukeela lankidetzeta-hitzarmenaren osteko protokoloa aldeztu aurretik aurkeztuko balitz, horixe baita alderdi honetan garrantzitsuena, azkenean ez dadin udalaren interesetarako mugatua edo kaltegarria gerta.

Zuzendari jaunak azaldu duenaren arabera, zirriborroan negoziatzeko oinarri batzuk baino ez daude eta adostasunera heltzen bada, behar bezala islatuta geratu eta zorrotz beteko da, eta bertan agertzen ez dena ezin izango da inola ere bortxaz ezarri.

Lucena Balda jaunak galdetu du ea zer gertatuko litzatekeen sinatu ostean parrokoz aldatuko balitz. Zuzendari jaunak erantzun dio esanez parrokiak izaera juridikoa duela eta sinadurak erakundearekin egingo lukeela lotura eta ez unean unean karguan dagoen pertsonarekin.

Urkiaga Alberdi jaunak esan du hitzarmenaren edukiaren zirriborroa onartu egin dutela eranskinean zehaztu denagatik, baldintza horiek sartu ezean, ez lirakeelako akordioaren alde agertuko.

Kontseiluburu jaunak amaitu du beste alderdiarekin bilera egingo duela esanez, aldez aurretik hitzarmenaren zirriborroa helaraziko dielarik azter dezaten. Eta gai horrekin lotuta sortzen den guztia jakinarazi egingo dela.

4.- KONTSEILUBURUAREN GAIAK

1) Kontseiluburu jaunak San Jorge jaietako oroi-txostenaren berri eman du eta Artezkaritza Kontseiluko kideei jaien nondik norakoak azaltzen dituen agiria banatu die. Hitza zuzendari jaunari eman dio, honek oroi-txostenik puntu eta datu garrantzitsuen laburpena egin duelarik.

2) Kontseiluburu jaunak jakinarazi du gardentasun ataria dagoeneko martxan dagoela eta beraz, autonomiadun erakundearen webgunean SKAren jarduera eta antolamenduari buruzko informazio eta agiririk garrantzitsuenak irakur daitezkeela.

3) Horrez gain, Artezkaritza Kontseiluko buruak jakinarazi du ekainaren 9an, 14:00etan, aurtengo Karmen jaietarako kartela aukeratzeko epaimahaia batuko dela eta Artekaritza Kontseiluko kideak gonbidatu ditu ekitaldira.

4) Azkenik, Artezkaritza Kontseiluko buruak jakinarazi du datorren astean jakinaraziko dela zein diren Karmengo jaietan arituko diren taldeak eta kontzertuak. Hala ere, esan du prentsan zabaldu aurretik, Artezkaritza Kontseiluko kideei emango zaiela informazioa.

5.- GALDE-ESKEAK

Garcia Saez jaunak galdetu du ea zein egoeratan dauden antzokiko langileak, zerbitzuaren aurreko kontratazioan ez zitzaizkien soldatak ordaindu eta.

Zuzendari jaunak gaiaren aurrekarien laburpena egin ostean, jakinarazi du aipatutako soldatak ordaindu ez izanari buruzko sententzia baten zain dagoela, aurreko epaiketa baliogabe geratu eta berriro egin behar izan zelako. Gaineratu du ulergarria dela pendiente dauden soldatak ordaindu ez izanak sortutako ezinegona, baina autonomiadun erakundeak ahal izan duen guztia egin duela egoera baretzeko. Horri buruz ematen diren ebazpen guztiak beteko direla esanez amaitu du mintzaldia.

Horrez gain, Garcia Saez jaunak adierazi du jardunaldia murriztu egin zaiela eta langileek ez dutela denbora nahikoa egin beharreko lanak behar bezala egin ahal izateko, horrek ezinegonak ere sortzen dituelarik.

Bestalde, Lucena Balda jaunak gaineratu du jakin duela zerbitzu horretako langileren batek gorabeheraren bat izan duela publikoarekin.

Zuzendari jaunak esan du aipatutako gorabehera sortu duen langileari zehapen-espeditentea ireki zaiola. Gaineratu du zerbitzu horren lizitazioa egingo dela berriro eta hobekuntza nabarmena izango dela.

Beste gairik izan ez denez, Kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, goizeko hamaikak eta berrogeita bost minutu direnean. Eta nik, Idazkari Eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.

O E°
KONTSEILUBURUA